

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bakioko Udala****Agiriak emoteagaitiko tasea arautzen dauan zerga ordenantzaren aldaketa behin betiko onetsi (Iragarkia 2017-07-02 Bakio).**

Bakioko Udalbatzak, 2016ko azaroaren 10ean egindako aparteko osoko bilkuran, ondoko hau erabaki zuen: agiriak emateagaitiko tasa arautzen duen zerga ordenantzaren aldaketa behin behinean onestea.

Gauzak horrela, espedientea jendaurrean azaldu zen hogeita hamar egun baliodun epean, udal ediktu oholean, udaleko web gunean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean ipinitako iragarkien bidez.

2016ko azaroaren 10eko erabaki hori eta berari buruzko aurrerakin guztiak arauk agintzen duten epean jendaurrean ezarri eta inork ere erreklamazio edo alegaziorik aurkeztu ez duenez, erabaki hori, behin betiko onetsi dela ulertu beharko da. Izan be, Toki Ogasunei buruzko abenduaren 9/2005 Foru Arauko 16. artikuluan horrela jasotzen da.

Udal erabaki horren aurka administrazioarekiko auzibide-errekurtsoa aurkeztu daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, testua argitaratu eta bi hilabeteko epean, betiere iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik zenbatzen hasita. Horrela bada, Administrazioarekiko Auzi Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46 artikulua ezarritakoarekin bat etorritik.

Era berean, ordenantza hori oso-osorik argitaratzen da, era honetara:

**ZERBITZU PUBLIKOA ETA ADMINISTRAZINO JARDUERA EGITEAGAITIKO TASEA ARAUPETU DAUAN ORDENANTZEA****AGIRIAK EMOTEA****I. OINARRIA ETA IZAERA****1. artikulua**

Bakioko Udalak administrazio agiriak emateagaitik tasak ezarri eta eskatuko ditu Ordenantza honetan xedatuaren arabera eta Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan ezarritakoarekin bat etorritik. Ordenantzaren zati den eranskinean jasotzen dira aplikagarri diren tarifak.

**2. artikulua**

Ordenantza hau udal mugarte osoan aplikatuko da.

**II. ZERGAGAI****3. artikulua**

Interesdunaren eskariz administrazio-agiriak egiteko garatzen den administrazio jarduera da tasaren zerga-gaia; interesdunaren eskariz egindakotzat jotzen dira interesdunak zuzenean eskatutakoak eta baita haren egite edo ez egiteak eraginda izapidetutako dena delako agiriak ere.

Ondorio hauetarako, edozein administrazio-agiri interesdunaren eskariz izapidetutatz emango da berak eragindakoa edo bere onerakoa bada, eskari zuzena egin ez badu ere.

**III. SUBJEKTU PASIBOA****4. artikulua**

Ondorengoak dira tasa hauen subjektu pasiboak: dena delako administrazio-agiria-  
ren edo espedientearen gaineko izapideak egitea eskatu edo eragiten duten pertsona  
fisikoak, pertsona juridikoak eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorrek 34 eta 35. artiku-  
luetan aipatzen dituen erakundeak

**IV. ARDURADUNAK****5. artikulua**

1. Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 40 eta 41 artikuluek aipatzen dituzten per-  
sona fisiko eta juridikoek izango dute subjektu pasiboari dagozkion zerga-obligazioen  
gaineko betebeharrak solidarioak.

2. Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 42. artikuluan xedatuaren arabera, ondoko  
hauek izango dira erantzule subsidiario: elkarteetako administratzaileak eta sindikoak,  
kontu-hartzaileak eta kiebra, lehiaketa, elkarte eta edozein entitateko kitatzaileak.

**V. SALBUESPENAK****6. artikulua**

Erakunde ofizialek ez dute tasa ordaindu beharrik izango.

**VI. KUOTA****7. artikulua**

Izapidetu beharreko agiri edo espedienteen izaeraren arabera ezarritako zenbateko  
jakin batez finkatuko da zerga-kuota, eranskinean azaldutako tarifen arabera.

**VII. SORTZAPENA****8. artikulua**

Udal administrazioak agiria ematen duen unean sortuko da tasa.

**VIII. XEDAPEN GEHIGARRIA**

Aurrekontuei buruzko Foru Arauen bidez zein zuzenean aplikagarri diren bestelako  
arau edo xedapenen bidez Tasaren araubidean gertatzen diren aldaketek Ordenantza  
Fiskal honen aldaketa eragingo dute, besterik gabe.

**IX. AZKEN XEDAPENA**

Honako Ordenantza hau, bere testua Bizkaiko Aldizkari Ofizialean oso-osorik argita-  
ratu eta biharamunean indarrean sartu eta aplikatuko da eta indarrean iraungo du harik  
eta aldatzea edo indargabetzea erabaki arte. Ordenantza fiskal honen zati bat aldatuz  
gero, aldatu gabeko gainontzeko artikuluek indarrean iraungo dute.

**X. XEDAPEN INDARGABETZAILEA**

Ordenantza honek indar barik ixten du aurrekoa.

**ERANSKINA****I. TARIFAK****Bat. — Ahalen askiespena**

Udal bulegoetan indar izango duen ahalen askiespen-eginbide bakoitzeko: 43 euro.

**Bi. — Agirien fotokopiak**

Din A4: 0,10 euro.

Din A3: 0,20 euro.

Planos Din A2: 0,90 euro.

Planos Din A1: 1,65 euro.

Planos DIN A0: 2,50 euro.

**Hiru. — Udal erabakien agiaztagiriak**

10 euro.

**Lau. — Egiaztagiriak eta hirigintza itaunketak**

33 euro.

**Bost. — Udaltzaingoak egindako atestatuen hitzez hitzeko kopiak**

20 euro.

**Sei. — Azterketa-eskubideen deialdiengatik**

4 euro.

**Zazpi. — Baimenak, dokumentuak eta kopia bikoiztuak emateagatik**

— Txartelak, baimenak edo udal eskumeneko txartelak egiteagatik, dokumentuko: 20 euro.

— Txartel, baimen edo dual eskumeneko txartelen kopia bikoiztuak egiteagatik, dokumentuko: 5 euro.

**Zortzi. — Udalan dauden dokumentu kulturalak edo hezigarriak ikasleentzat kopiatzea**

Dina 4: 0,05 euro.

**Bederatzi. — Agiriaren kopia udaleko udal bulegoetatik kanpo egin beharra egonez gero**

Joan-etorria dela eta: 50 euro.

Bakion, 2017ko uztailaren 4an. — Alkate andrea, Amets Juaregizar Baraiazarra